

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Buztintxuri ikastetxe publikoak V. Vicente Ferrer Sari Nazionala lortu du

Horren bidez, ikastetxeak munduko desberdintasunen inguruan sentsibilizatzeko eta gizarte-konpromisoa indartzeko sustatutako hezkuntza-proiektuak saritu dira.

Jueves, 26 de diciembre de 2013

Iruñeko Buztintxuri ikastetxe publikoari eman diote V. Vicente Ferrer Garapenerako Hezkuntzako Saria. Sari horren bidez munduko desberdintasunen inguruan sentsibilizatzeko helburua duten hezkuntza-proiektuak aintzatesten dira, baita bidezkoagoa den mundua izatera iristeko jarrera solidario eta gizarte-konpromisoak bultzatzekoak ere.



Ikastetxeko ordezkariak, saria eskuartean

Iruñeko ikastetxeak bi hezkuntza-proiektuarekin gailendu da haurren kategorian. Horietako baten helburua pobrezia tristurarekin eta aberastasuna poztasunarekin lotzen dituzten alde aurretiko usteak desagitea da. Bestearen xedea ikasketetan zailtasunak dituzten nerabeak motibatzea da, 5 urteko ikasleen heziketan parte hartzera animatuz.

Lehenengo ekimena "**Proyecto VACA: por dentro y por fuera, construyendo juntos el concepto de belleza**" (VACA proiektua: **kanpotik eta barrutik, edertasunaren ideia denok batera eraikitzeko**) izeneko da, eta 3 eta 5 urte arteko ikasleei arte garaikidea erakutsi eta irakatsi nahi zaie edertasunaren ideia oinarri, eta arreta berezia jarrita barneko edertasunari, baita une ederrei edo beteta sentitzen garen uneei ere.

Horretarako, pozik agertzen diren beraien argazkiak alderatu dituzte garapen bidean diren herrialdeetako haur irribartsuen argazkiekin. Asmoa pobrezia tristurarekin eta ugaritasuna alaitasun edo poztasunarekin lotzen dituen ustea haustea izan da. Proiektua UhArte Arte Garaikidearen Zentroarekin elkarlanean arituta gauzatu da.

Nerabeekin egindako proiektua

Bigarren ekimena, "**Aprendizaje servicio-grupos interactivos: uniendo compromisos**" (Ikaskuntza zerbitzu eta talde interaktiboaren bidez: konpromisoak batzea), Zizur Nagusiko Zizur BHLrekin batera garatu dute. Proiektu horretan, ikasketetan zailtasunak

dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko hainbat ikaslek Buztintxuri ikastetxeko bost urteko ikasleentzako azalpen matematikoak landu dituzte eta, ondoren, azaldu egin dizkiete.

Irakatsi eta ikasteko prozesua jolas gisa eta modu interaktiboan gauzatu da, azalpenak emanda eta, adibidez, sukaldaritzako tailerrak eginda, errezetetan ere batuketak eta kenketak ere egin behar izaten direlako. Asmoa zera izan da, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleek adin txikiagoko ikasleen heziketan modu entretenigarrian parte hartzea.

Saria garapenerako hezkuntzari buruzko bi pertsonarentzako trebakuntza pertsonalizatua izan da, eta Mollina (Malaga) herrian eta Tingis (Maroko) hirian egin dira. Han, irabazle atera diren proiektuen berri eman da eta hainbat leku bisitatu dituzte, adibidez, eraikitzen ari diren aldiriko auzo bat eta emakumeen eta umezurtzen zentro bat Tingisen.

Gogorarazi beharrekoa da, Buztintxuri ikastetxe publikoak, 2011n, III. Vicente Ferrer Saria eskuratu zuela "Muchas culturas, un color" (Hainbat kultura, kolore bakarra) proiektuari esker. Proiektu horretan kultur aniztasuna eta ingurumena landu ziren, baita generoa eta bidezko merkataritza ere, eskolako materiala Saharako errefuxiatuen eremu batera bidalita, baratze ekologiko bat jarrita eta birziklatuta.

Nafarroako Eskola Solidarioak

Buztintxuri ikastetxea Nafarroako Eskola Solidarioen sare osatzen duten 30 ikastetxeetako bat da. Sarea eratu izanaren helburua ikasleei elkartasuna, errespetua eta tolerantzia bezalako balioak irakastea da, baita munduko desberdintasunen inguruan kontzientziaztea ere.

Programa Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako GGKEren (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen) koordinatzaileak bultzatutakoa da, eta 2009-2010 ikasturtean jarri zen abian. Orduan, hiru ikastetxek parte hartu zuten, baina gaur egun 30 ikastetxek parte hartzen dute.

Honako hauek dira ikastetxeak: Murietako HLHI, Iturrama NHI, Ribaforadako HHI, Murchanteko HHI, Añorbeko HLHI, Zizurko BHI, Alesbesko El Castellar HLHI IB, Pedro de Ursúa BHI, San Ignacio I, Monte San Julián HLHI, Compañía de María HLHI, San Francisco Javier HLHI, Elvira España HLHI, Santa Teresa I, Santa Catalina I, Garabatos HHI, Buztintxuri HLHI, Dos de Mayo HLHI, Navarro Villoslada HLHI, Cuatro Vientos MIT, San Fausto HLHI, Francisco Arbeloa HLHI, Sarriguren HLHI, Santa María Real Maristas I, Erizaintza Eskola, Hijas de Jesús I, Santa Bárbara HLHI, Zarrakazteluko BHI, Salesiano I, eta Zizurko BHI, Nuestra Señora del Huerto, Irubide eta Martzillako ekonomiako ikastetxeen artekoa.

Alboan Fundazioa, IPES Elkarte, UNICEF edo Bakerako Lankidetzaren Batzarra bezalako GGKEk parte hartzen dute proiektuetan, hala, irakasleak trebatzen dituzte horiek, ondoren, ezagutzak ikasleei emateko gelan egiten diren hainbat jardueraren bidez.